



Bilbon, 2025eko azaroak 29

Gaur, azaroak 29, Palestinar Herriarekiko Elkartasunerako Nazioarteko Eguna da, eta, horregatik, ezin diogu utzi Israel Palestinako herriari egiten ari zaion genozidioa gaitzesteari. Ikastetxeak ere bonbardatu beharreko helburu izan dira. Berriro diogu: gure haurrak ere badira!

SEGREGAZIOAREN KONTRA, PUBLIKOA DA BIDEA!

Euskal Eskola Publikoko familiak, langileak, irakasleak eta ikasleak:

GORA EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA!

- Eskola publikoa historian zehar irabazitako lorpenik handienetako bat da.
- Eskola publikoaren garapena berdintasunaren eta ongizate mailako adierazlerik onena da.
- Eskola publikoa da Euskal Herriko hezkuntza-zerbitzu publiko bakarra, doakoa eta unibertsala, denok defendatu behar duguna.
- Eskola publikoa inklusiboa da, denontzat irekia, adoktrinamendurik gabekoa.
- Eskola publikoa gehien euskalduntzen duen eskola da

Sinesten dugu, beraz, Eskola Publikoan eta bere balioetan: anitza, integratzailea, jatorrizko desoreken berdintzailea, laikoa, hezkidetzan konprometitua, berdintasunean eta kalitatean oinarritutakoa, ikasle guztien hezkuntza integrala eta gizarte-kohesioa bermatzen dituen.

ESKOLA PUBLIKOA HERRIAREN ESKOLA DA!

BAINA...

- Eusko Jaurlaritzak ez du Eskola publikoa erdigunean jartzen, ez du eskola publikoa lehenesten, parekatu nahi ditu bi hezkuntza sareak, publikoa eta pribatua, berdinak balira bezala.
- Hezkuntza Sailak finantzazio osoa eman dio hezkuntza pribatuari 2 urteetatik, 18 urteetara, inoizko eta inongo finantzaziorik handiena.
- Hezkuntza Sailaren planifikazioa irakaskuntza kontzertatuaren mesedetan bideratuta dago, bere gain eskaintza baimenduz, ratioak jaisten, diru-laguntzak handituz...
- Hezkuntza Sailak bere ardurak hartu beharrean azpikontrata bat ordaintzen du, irakaskuntza kontzertatua gobernuaren azpikontrata bat delako.
- Hezkuntza Sailaren politika, hitz batean esanda, pribatizatzailea da.

PRIBATUA EZ DA PUBLIKOA!

Eusko Jaurlaritzaren politikaren ONDORIOZ:

- Hezkuntza sistema duala eta desorekatua dugu, sare publikoa bigarren mailara baztertzen duena.
- Hezkuntza sistemak ikasleen jatorriaren, egoera sozio-ekonomikoaren edo erlijioaren arabera bereizten ditu.

- Hezkuntza sistemak eskola-segregazioa bultzatzen du, getoak sortzen ditu.
- Hezkuntza sistemak diskriminatzailea da, integrazioaren aurka doa, gizarte-kohesioaren kontra.

HORREN AURREAN, Eusko Jaurlaritzak segregazioaren kontrako mahai berri bat osatu duela dio

- Segregazioaren kontrako Mahai horrek osaera desorekatua du, eskola publikoa gutxiengoan dago, bere diagnostikoa partziala da, eta ontzat eman ditu Hezkuntza Sailak orain arte hartu dituen neurriak.
- Segregazioaren kontrako Mahaiak segregazioa murrizteko egiten dituen proposamenek ez dute ezer konponduko.
- Segregazioaren kontrako Mahaiak Hezkuntza Sailak egindakoa berrestea eta babestea du helburu, inondik inora ere eskola-segregazioa murriztea.

SEGREGAZIOAREN KONTRAKO MAHAIA ITXURAKERIA DA!

GURE USTEZ:

- Segregazioaren arrazoa irakaskuntza pribatu-itunduaren existentzia bera da, kontzertazio ekonomikoa da, ikasleen banaketa desorekatua sustatzen duelako.
- Segregazioaren arazoa ez da konponduko irakaskuntza-sistema dualari aurre egiten ez bazaio, arazo estrukturala delako, eta sistema osoari eragiten dioten neurri estrukturalak behar dira.
- Segregazioaren arazoa ez da ikasle zaurgarrien banaketa injustoarekin amaituko.
- Segregazioaren arazoa ez da konponduko politika privatizatzaileak alde batera uzten ez badira

DIRU PUBLIKOA ESKOLA PUBLIKOARENTZAT!

HORREGATIK GURE ESKAERAK:

- Eskola publikoa lehenestea, giza baliabideetan eta ekonomikoetan
- Eskola publikoetako azpiegiturak hobetzea
- Plazak planifikatzeko eta esleitzeko, sare pribatuaren gain eskaintza debekatzea
- Kontzertazioa pixkanaka murriztea
- Ikastetxe kontzertatuentzat publikazio-bideak irekitzea

Ezinezkoa da pertsona aske eta berdinen gizarte bat lortzea berdintasunean oinarritutako hezkuntzarik gabe. Eta ezinezkoa da berdintasunean hezteko oraindik ere diru publikoaren sostengatutako sare pribatuak mantenduz, betiere eskola publikoaren kaltetan, hezkuntza pribatua berdintasunaren eta askatasunaren balioetatik urruntzen baita, beti.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO!

EUSKAL ESKOLA PUBLIKO BAKARRA NAHI DUGU!

SEGREGAZIOAREN KONTRA PUBLIKOA DA BIDEA!

GORA EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO TOPAGUNEA